

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

“Sektore emergenteentzako enplegu-planeko kontrataziorako laguntzak, 2024” izeneko udal laguntzen deialdi publikoaren lehen ebazpena, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak 2024ko abenduaren 16an emana

2023ko apirilaren 21ean egindako ohiko bilkuran, Vitoria-Gasteizko Udalbatzak Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrari hasierako onespena ematea erabaki zuen. Behin betiko ordenantza 2023ko uztailaren 28ko ALHAOn argitaratu zen (88. zenbakia), eta 2023ko urriaren 1ean jarri zen indarrean. Ordenantzaren xedea da Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzak emateko prozeduraren oinarri arautzaile orokorrak ezartzea.

2024ko uztailaren 12an onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak “sektore emergenteentzako enplegu-planeko kontrataziorako laguntzak, 2024” izeneko laguntzen udal programaren deialdia eta oinarri arautzaileak (2024ko irailaren 20ko ALHAO, 107. zenbakia), konkurrentzia sinplearen prozeduraren bidez izapidetzeko.

Aipatutako deialdia finantzatzeko baliabide ekonomikoak 273.000,00 euro dira guztira, 2024ko ekitaldiko aurrekontuko 2024.0823.2411.47101 (“sektore emergenteentzako enplegu-planeko kontrataziorako laguntzak, 2024”) partidaren kontura.

Eskabideak aurkezteko epea 2025eko martxoaren 10ean amaitzen bada ere (9. oinarria, Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko abenduaren 13ko erabakiaren bidez aldatua), ebazpen-proposamen honek 2024ko abenduaren 12ra arte jasotako eskabideak jasotzen ditu, inolako zuzenketarik behar izan ez dutenak. Deialdiaren 12. oinarriari jarraikiz, eskabideek oinarri hauetan adierazitako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu ondoren, eskabideen sarrera-erregistroko hurrenkeraren arabera emango dira laguntzak, 7. oinarrian adierazitako kreditua agortu arte. Tokiko Gobernu Batzarraren erabaki baten bidez eman edo ukatuko dira laguntzak, arestian aipatutako erregistro-hurrenkera kontuan hartuta.

2024ko abenduaren 12ko idazkiaren bidez jakinarazi zuten Enpresen Udal Zerbitzuko teknikariek 12 eskaera jaso zirela lehen fase honetan, eta horietatik guztiek deialdiaren baldintzak betetzen zituztela.

Lehen fase honetan onuradun guztiei dagokien dirulaguntzaren zenbatekoen batura 120.000,00 euro da; beraz, kreditu nahikoa dago betekizunak betetzen dituzten eskabide guztietarako.

Deialdian ezarritako prozeduraren arabera, eta Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko uztailaren 12an eskumenak eskuordetzeaz hartutako erabakiaren ildotik, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak du eskabideak ebazteko eskumena.

Horrenbestez, udal aurrekontuetan nahikoa kreditu-zuzkidurarik badagoenez, eta udal langileek egindako proposamena aintzat harturik, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak lehen ebazpen hau egin du,

Lehen ebazpena

Lehena. 2024ko abenduaren 12ko proposamen teknikoa ikusita, 12. oinarriarekin bat etorritik, eta deialdiaren oinarrietan ezarritako betekizunak betetzen direla egiaztatu ondoren, onetsi egin dira "sektore emergenteentzako enplegu-planeko kontratazioarako laguntzak, 2024" programaren barruan 2024ko abenduaren 12ra bitartean honakoek aurkeztutako dirulaguntza-eskabideak:

ZK.	ERREGISTRO DATA	IFZ	KONTRATATUTAKO PERTSONA	SEXUA	JARDUNALDIA	ZENBATEKOA
1	10/8/2024	B01016344	O. S.	G	0	10.000,00 €
2	10/10/2024	B01291236	S.B.	E	0	10.000,00 €
3	10/22/2024	B01394584	J. C. V.	G	0	10.000,00 €
4	10/24/2024	B01341585	F. R. L.	G	0	10.000,00 €
5	10/29/2024	B01291236	M. H.	G	0	10.000,00 €
6	11/13/2024	A01038017	R. M. C.	E	0	10.000,00 €
7	11/14/2024	B01153907	H.D.H.	G	0	10.000,00 €
8	11/15/2024	B01287291	J.M.B.R.	G	0	10.000,00 €
9	11/21/2024	B01291236	C. R.U.	G	0	10.000,00 €
10	11/22/2024	B01313154	J.G. A.	G	0	10.000,00 €
11	11/25/2024	B01475524	D.S.S.	G	0	10.000,00 €
12	11/27/2024	B01529007	M.M.	G	0	10.000,00 €

Bigarrena. "Sektore emergenteentzako enplegu-planeko kontratazioarako laguntzak, 2024" izeneko laguntza-deialdian emandako dirulaguntzen zenbatekoa (120.000,00 euro) 2024/0823. 2411.47101 aurrekontu-partidaren kontura jasota uztea, eta onuradunei ordaintzea, ordaintzeta bakarren, deialdiaren 17. oinarrian ezarritakoari jarraituz.

Hirugarrena. Erabaki hau Vitoria-Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan eta ALHAOean argitaratzea, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Legearen irizpideei jarraituz (12. oinarria).

Laugarrena. Onuradunek deialdi honen oinarrietan adierazitako betebeharrak betetzen ez badituzte, laguntzak bertan behera geratu ahalko dira, eta osorik edo partzialki ordainduta badaude, dirulaguntza itzuli beharko da, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren 37.1 artikuluan adierazitakoaren arabera, eta dirulaguntzen ordenantza orokorraren 40. artikuluan aurreikusitako kasuetan (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia), oinarri hauen testuan jasotakoez gain.

Bosgarrena. Ebazpena onuradunei jakinaraztea. Orobat jakinaraztea ebazpenaren kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, zuzenean aurkez daitekeela administrazioarekiko auzi-errekurtsioa Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera kontatuta.

Nolanahi ere, alde aurretik aukerako berraztertze errekurtsioa aurkez daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu hori berariaz edo ustez ebatzi arte—. Ondoren, ebazpen espresua ematen bada, bi hilabeteko epea izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkezteko, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta; bestela, edozein unetan aurkeztu ahalko da, berariazko araudiaren arabera administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko abenduaren 16an

Ekonimia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko Administrazio Zerbitzuko burua
JOSEBA ANDONI GARCIA-ARDANAZ ARDANAZ